

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ARETXABALETAKO UDALA

Plan estrategikoa

Aretxabaletako Udalak 2026ko maiatzaren 13an izandako osoko bilkuran erabaki zuen Leizarra musika eskolari zuzentzen zaion dirulaguntza kopurua aldatzea 2025-2027ko dirulaguntzen plan estrategikoan. Aldaketa egin ondoren, honela gertzen da Leizarra musika eskolari buruzko programa:

Dirulaguntzaren xedea: Musika Eskolaren finantziazioan laguntzea, ikasleen kuota eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru sarrerak osatuz.

Udalak zer lortu nahi duen: Musika eta dantza irakaskuntza sustatzea Aretxabaletan, eta horretarako Musika Eskola bat izatea. Horretaz gain, udalerrian musika eta dantzaren irakaskuntza eta sustapena egiteko jarduerak antolatzea eta musika eskolako hainbat taldek (bandak, orkestak, dantza taldeak, eta abarrek) eskainitako kontzertuak, dantza emanaldiak eta entzunaldiak ematea.

Norentzat: Leizarra Musika Eskola.

Ematekoaren modalitatea: Nominatiboa, hitzarmena.

Zenbateko eta aurrekontu aplikazioa: 72.000 € 1.0511.481.326.00.01.2026 Leizarra musika eskolari dirulaguntza.

Aretxabaleta, 2026ko ekainaren 1a.—Garikoitz Iturbe Etxebarria, alkatea. (4134)

AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA

Plan estratégico

En sesión de pleno de fecha 13 de mayo de 2026, el Ayuntamiento de Aretxabaleta acordó modificar la cantidad de la subvención dirigida a Leizarra Musika Eskola y recogida en el plan estratégico de subvenciones 2025-2027. Efectuada la modificación, el programa relativo a Leizarra Musika Eskola queda de la siguiente forma:

Objetivo: contribuir en la financiación de la Escuela de Música complementando la cuota del alumnado y los ingresos procedentes del Gobierno Vasco.

Que quiere conseguir el Ayuntamiento: Fomentar las enseñanzas de música y danza en Aretxabaleta y para ello contar con una escuela de música. A su vez, impulsar la realización de actividades de enseñanza y promoción de la música y la danza en el municipio, y organizar conciertos, actuaciones de danza y audiciones ofrecidas por diferentes grupos de la escuela de música (bandas, orquestas, grupos de danza, etc.).

A quién va dirigido: Leizarra Musika Eskola.

Modalidad de impartición: Nominativo, convenio.

Cuantía y partida presupuestaria: 72.000 € con cargo a la partida 1.0511.481.326.00.01.2026 Leizarra musika eskolari dirulaguntza.

Aretxabaleta, a 1 de junio de 2026.—El alcalde, Garikoitz Iturbe Etxebarria. (4134)